

SEASKAN ZERTAN (ARI) GARA ?

Euskararen zuzentasunaz : UEUren mintegia, 2024ko azaroaren 13a Baionan

HELBURUAK :

- Euskal hiztun osoak sortzea.
- Ikasleek hizkuntzaren erregistro ezberdinak barneratzea eta menperatzea.
- Etxeko transmisioa peko errekaratu den heinean, ikastolak ardura berezia du hizkuntzaren transmisioan.
- Seaskaren berezitasuna : murgiltze eredua burutik buru, haur hezkuntzatik lizeora.

NOLA ?

- ⇒ Haur hezkuntzan eta lehen mailan :
 - Euskalkiak edo lekuko aldaerak lehenesten dira, adibidez Xiberoan eta Oztibarren.
 - Lehen mailako azken bi urteetan, progresiboki batuera sartzen da.
- ⇒ Kolegioetan batuera da ardatza, baita lizeoan ere.

Inaki Iurrebasoren ala Paula Kasaresen gogoetetan bermatuz, gaur gaurkoz, hizkuntza gaitasunari dagokion korapiloak du gure arreta erakartzen. Erran genezake Seaskaren helburu nagusia dela egungo egunean. Ikasleen hizkuntza gaitasunean eta era nabarmenean adierazpenean dugu korapiloa.

Egunerokoan neurtzen dugu teoriaren eta praktikaren arteko arrakala. Murgiltze ereduak berez, eskolaz kanpo eragiten ez baldin bada, hizkuntza gaitasunaren helburua betetzea korapilatsua gertatzen da.

EGUN SEASKAN INDARREAN DEN HIZKUNTZA PROIEKTUAREN NONDIK-NORAKOA :

OINARRIA EDO ARDATZA : Euskarari dagokion **esku-hartzea planifikatu eta ebaluatu.**

- ⇒ Eremu formalean :
 - Kolegioan eta lizeoan euskara programaketa. *Hizkuntza nagusi baten araberako hizkuntza helburuak txertatuz, hizkuntza gaitasunari dagokionez eta hizkuntzaren kontestuari dagokionez (euskal kosmobisioa).*

- Hirugarreneko ikasleei euskara froga. Hizkuntza gaitasuna (B2 maila) eta jakitateak ebaluatzeko, ikasleen kurrikulumaren arabera, eta ez helduen euskalduntze kurrikulumaren arabera (egungo zertifikazioak).
- Lizeoan leheneko ikasleek EGA edo C1 ebaluaketa prestatzen dute eta EEPk antolatu azterketara aurkezten dira.
- Heldu den ikasturtean programaketa lehen mailan, eta azken urtean ebaluaketa bat.

⇒ Eremu ez formalean :

- Kanpoko tenoreen kudeaketa
- Arikala : hizkuntza erregistro ez formalaren lanketa

⇒ Irakasle eta helduen formakuntza (B2/C1)

- Euskaraz irakasten duten irakasle guztiak C1 maila behar dute. Atzerriko hizkuntza bat irakastern duten irakasleek berriz B2 maila.